

2015

*Gipuzkoako
Lurralde
Behategia*

Lanaren egilea:



Txosten laburra

Euskal Eurohiria II:
Etxebizitza eta establezimenduak

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



www.gipuzkoakodatuak.net

Aurkibidea

Sarrera

1. Etxebizitza

- 1 Etxebizitza dentsitatea eta lurraldearen artifizializazioa
- 2 Etxebizitza bilakaera
- 3 Etxebizitza nagusiak ez direnen presentzia

2. Establezimenduak

- 1 Establezimenduen banaketa lurraldean
- 2 Lurralde espezializazioa

3. Ondorioak

4. DATUAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:

[- Datuak ↗](#)

[- Argitalpen multimedia ↗](#)

Sarrera

Euskal Eurohiriari buruzko lehenengo txostenari jarraipena emateko eta eskualde honen argazkia osatzeko helburuarekin bigarren atala dator oraingoan. Lehenengo txostenean biztanleriaren azterketa egin zen ikuspegi demografikoa lantzeko. Bigarren txosten honetan ikuspegi sozioekonomikoa ulertzeko asmoz landu diren gaiak etxebizitza eta establezimenduak izan dira.


1. Etxebizitza

[-Datuak ↗](#)

Etxebizitza dentsitatea

- 290.602 etxebizitza daude Euskal Eurohirian, Gipuzkoan 336.558.
- Eurohiriaren bi muturretan kontzentratzen da etxebizitza gehien, %57a Donostian eta Baiona-Angelu-Miarritzen.

Etxebizitza kopurua, Gip 2014-Lap 2012



1. Etxebizitza

[-Datuak ↗](#)

Etxebizitza dentsitatea


- Etxebizitza dentsitatea Gipuzkoan baino altuagoa da Eurohirian.

100 biztanleko 55 etxebizitza daude Eurohirian eta 47 Gipuzkoan.

- Lurraldearen %27,8a dago artifizializatuta, Gipuzkoan baino maila altuagoan (%21).

Etxebizitza dentsitatea, Gip 2014-Lap 2012

Lapurdiko udalerrietan dentsitate altuagoa dago Gipuzkoakoetan baino. Balio altuenak Donibane Lohizune, Getaria eta Miarritzen daude eta baxuenak Oiartzun, Biriatu eta Lezon.




1. Etxebizitza

[-Datuak ↗](#)

Etxebizitza bilakaera


- Etxebizitza parkeak hazkunde handia izan du 1991-2011 artean (%36,4). Gipuzkoan ere antzekoa izan da (%34) baina 2006 eta 2011 artean apaltzeko joera hartu du.

Etxebizitzen bilakaera (1991 oin.=100). Eurohiria eta Gipuzkoa, 1991-2011.



Etxebizitza hazkundera 1991/2011 (%)

Udalerrri mailan hazkunde handiena Lapurdiko udalerriek izan dute (Senpere, Urruña eta Bidartek bikoiztu egin dute etxebizitza kopurua). Hazkunde txikiena Pasaia, Donibane Lohizunek eta Miarriztek izan dute.



1. Etxebizitza


[-Datuak ↗](#)

Etxebizitza nagusiak ez direnen presentzia

- Bigarren etxebizitzak, etxebizitza hutsak eta etxebizitza kolektiboak etxebizitza parkearen bostena (%20,9) hartzen dute, Gipuzkoako datuarekin alderatuz balio altuagoa (%15,9).
- 1991-2011 artean %16,9 hazi egin da etxebizitza mota hauen presentzia Eurohirian eta Gipuzkoan beherakada bat izan du (-%9,5). Lapurdiko udalerrietan hazkunde handiak izan dira, gehien Urruña, Arbona eta Bidarten.

Etxebizitza nagusiak ez direnen presentzia (%) Gipuzkoa 2014-Lapurdi 2012

Etxebizitza nagusiak ez direnen presentzia handiena Getaria, Donibane Lohizune eta Ziburun dago. Presentzia baxuena Bokale, Errearteria eta Lezon.




2. Establezimenduak

[-Datuak ↗](#)

Lurralde espezializazioa

- Establezimenduak 4 sektoretan banatuta, Gipuzkoarekin alderatuz Eurohiria espezializatuago dago zerbitzuetan (%84,3).



- Gipuzkoan industriak eta eraikuntzak presentzia handiagoa dute (%13 eta %12 hurrenez hurren).


2. Establezimenduak

[-Datuak ↗](#)

Lurralde espezializazioa

- Zerbitzuen sektorea hobeto ulertzeko azpisektoreen banaketa aztertu behar da:
 - Eurohirian Merkataritza, garraioa eta ostalaritza azpisektoreak pisu handiena badu ere (%39,6), Gipuzkoan baino txikiagoa da presentzia.
 - Eurohirian Gipuzkoan baino portzentaje altuagoa dute Jarduerak higiezinekin (%9,4), Finantza jarduerak eta aseguruetakoeak (%6,1) eta Artea eta beste zerbitzuek (%13,4).

Zerbitzuetako azpisektoreak



2. Establezimenduak


[-Datuak ↗](#)

Lurralde espezializazioa

- **Maila teknologiko handia eta ertain-handia** duten 255 establezimendu daude Eurohirian, industria sektoreko establezimenduekiko %15,2. Gipuzkoan %17,7 dira mota honetako establezimenduak.
- Eurohiri barneko banaketan mota honetako establezimenduen ia %65 Gipuzkoako udalerrietan kontzentratzen da.
- **Ezagutza intentsiboko jardueretan** aritzen diren 8.929 establezimendu daude Eurohirian (establezimendu guztien %30,3). Gipuzkoan %27,7koa da ehuneko hau.

Maila teknologiko handia eta ertain-handia(%) (industria establezimenduekiko), 2013

Arbona, Angelu eta Donostia dira industria establezimenduak kontutan hartuta portzentaje altuenak dituztenak.



3. Ondorioak

Eurohiriko bi txostenak aztertuta, hauek dira ateratzen diren ondorioak:

- Lur eremu honen korridore izaera eta duen azalera aintzat hartuta, biztanleria, etxebizitza eta establezimendu kontzentrazio handiko eskualdea da, jarraikortasun espazial handiko eremua osatuz. Hala ere, nabarmendu behar da lurraldearen bi muturretan daudela hirigune garrantzitsuenak, Donostia eta Baiona-Angelu-Miarritze.
- Honek bi polotako lurralde bat marrazten du, interesgarria gertatzen dena lurraldearen indarguneak eta garapena orekatzen joateko. Ikuspegi honetatik, bai jarduera ekonomikoak, bai erresidentzialak zein aisialdikoak edo komertzialak lurraldean sakabanatuta daude eta etorkizunari begira, ezinbestekoa egiten dute mugikortasun egitasmo indartsu bat abian jartzea, bai osagarritasuna lortzeko bai bikoiztasunak gutxitzeko.
- Kontuan izan behar dugu, eremu polinuklear honen historian prozesu demografiko, urbanistiko zein ekonomiko desberdinak uztartzen direla, aniztasun interesgarri bat sortuz, baina aintzat hartzeko moduko desberdintasunak dituen bere baitan. Biztanleriaren adin piramide desberdinak, jatorri aniztasunak edo jarduera ekonomikoen espezializazioak sakon eragiten ditu, oraingoz euro-hiriaren geografia.
- Biztanleria ezaugarritzerako garaian, zahartze prozesu altua du eta ordezkatzeko indize baxuak aurrera begirako gizarte zaharkituagoa erakusten dute.

3. Ondorioak

Eurohiriko bi txostenak aztertuta, hauek dira ateratzen diren ondorioak:

- Bigarren etxebizitzek eta etxebizitza hutsek izandako bilakaerak erakusten du eremu honen izaera erresidentziala eta jasotzen duen biztanleria estazionalaren presentzia handia. Honek lotura zuzena du higiezinaren azpisektoreko establezimenduek ehundura ekonomikoan duten garrantziarekin.
- Halaber, jarduera ekonomikoaren eremuan, ageriko desberdintasuna dago Gipuzkoako lurralde eremua eta Lapurdikoaren artean, geroari begira, osagarritasuna landuz gero, gizarte mailako kohesioa eragiteko lagungarri gerta daitekeena.
- Jarduera berritzaileak zein maila teknologiko handikoen presentzia aipagarria da, edonola ere, zaharkitutako jarduerak gainditzeko premia dagoen aldetik ezinbestean landu beharko da, gaitasun teknologiko edo berritzailearen transferentzia ekimen ekonomiko berrietara egokitzea, hartara, euro hiria jarduera aurrerakoien erreferentziatzeko eremu bihurtzeko Europako Batasunaren eremuan.
- Edonola ere, ez dago itsutzerik, egun euro-hiria hartzen duen eremua baino zabalagoa bere baita eragin eremua. Ikuspegi horretatik ezinbestekoa zaio lurralde eremu zabalago batean bere burua kokatu eta ikuspegi integratzaileagoa izatea, esaterako, Lapurdiko bitarteko zonaldearekin edo Urumea, Oria eta Urola ibaien arroarekin.

4. DATUAK

ERANSKINAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:

[-Argitalpen multimedia](#)

I. Taula: Etxebizitza

UDALERRIA	Etxebizitza kopurua (lap2012,gip2014)	Etxebizitza dentsitatea (lap2012,gip2014)	Lurralde artifizializazioa (%) Gip 05/Lap 07	Etxebizitza hazkundera 91/01	Etxebizitza hazkundera 01/11	Etxebizitza hazkundera 91/11	Etxebizitza nagusiak ez direnen hazkundera 1991-2011 (%)	Etxebizitza nagusiak ez direnak (lap2012,gip2014) (%)
GIPUZKOA	336.558	47,1	21,0	20,7	11,0	34,0	-9	15,3
EUROHIRIA	290.602	55,3	27,8	17,3	16,2	36,4	17	20,9
Hondarribia	8.448	50,0	14,1	35,3	2,9	39,3	-0,9	22,8
Irun	26.959	44,1	82,7	20,8	12,5	35,8	-24,5	11,4
Lezo	2.628	43,7	40,2	30,2	3,3	34,5	-57,6	9,0
Oiartzun	4.108	41,2	20,1	21,9	10,4	34,6	-42,9	12,3
Pasaia	7.532	47,3	50,8	11,7	3,1	15,1	25,1	12,2
Errenteria	17.522	44,7	49,0	12,5	12,4	26,5	-31,9	7,7
Donostia-San Sebastián	90.214	48,5	50,7	17,8	13,6	33,8	-24,1	15,8
Ahetze	930	49,0	25,8	23,3	63,1	101,0	46,6	17,8
Ainhoa	365	54,6	35,3	24,1	16,5	44,6	25,1	25,0
Angelu	23.785	60,6	32,2	22,4	16,8	42,9	35,2	17,1
Arbona	912	43,9	76,7	18,4	49,3	76,8	153,1	16,1
Azkaine	2.236	53,8	59,5	14,0	44,5	64,8	20,4	23,1
Baiona	27.007	58,9	83,5	8,7	17,0	27,1	0,9	10,5
Biarritz/Miarritze	25.370	100,2	2,0	11,6	9,6	22,3	41,5	43,7
Bidarte	4.644	71,3	1,5	34,0	48,6	99,1	132,1	36,3
Biriatu	494	43,4	11,7	22,6	42,1	74,2	29,3	13,0
Bokale	3.881	49,9	50,9	8,0	31,0	41,5	20,9	6,8
Ziburu	6.150	89,7	0,2	26,6	33,3	68,7	122,9	45,4
Getaria	1.237	94,8	67,1	4,8	33,8	40,2	48,6	51,3
Hendaia	13.354	79,7	11,4	25,0	39,7	74,6	80,3	39,7
Donibane Lohizune	13.185	101,5	41,2	10,1	13,6	25,1	31,9	49,6
Senpere	3.031	50,9	12,1	33,4	52,2	103,0	78,7	18,8
Sara	1.359	53,6	8,9	18,0	30,8	54,3	64,1	26,7
Urruña	5.250	57,0	3,8	29,9	55,2	101,7	182,5	27,2

4. DATUAK

ERANSKINAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:

[-Argitalpen multimedia 7](#)

II. Taula: Establezimenduak (2013)

UDALERRIA	Establezi mendu kopurua	Establezimendu dentsitatea	1. (%)	Industria (%)	Eraikuntza (%)	Merkataritza, garaioa eta ostalaritza (%)	Informazioa eta komunikazi oak (%)	Finantza jarduerak eta aseguruetoak (%)	Jarduerak higiezinekin (%)	Jarduera alaketan zerbitzu lagungarri ak (%)	Herri adminis trazioa, hezkunt za eta osasuna (%)	Artea eta beste zerbitzuak (%)
GIPUZKOA	27.402	38,4	0,8	13,0	12,0	35,8	2	3,8	2,9	13,4	9,0	7,0
EUROHIRIA	29480	56,4	0,9	5,7	9,1	33,4	3	5,1	7,9	15,1	8,7	11,3
Hondarribia	471	28,0	5,9	6,2	11,3	39,3	1,9	3,0	5,1	13,0	8,3	6,2
Irun	2.406	39,4	0,2	10,1	11,5	47,1	1,9	2,5	3,1	10,6	7,2	5,8
Lezo	293	48,4	0,3	32,8	16,7	31,1	0,0	2,0	1,7	6,1	5,5	3,8
Oiartzun	751	75,1	0,9	14,8	14,9	42,9	2,8	1,7	2,0	12,5	3,1	4,4
Pasaia	380	24,0	4,2	5,8	10,8	45,5	1,6	4,5	1,3	9,2	7,9	9,2
Errenteria	866	22,1	0,2	12,7	15,5	39,7	1,0	3,6	1,6	8,1	9,8	7,7
Donostia-San Sebastián	8.846	47,4	0,2	3,8	10,1	34,2	3,8	5,0	4,0	20,9	9,8	8,3
Ahetze	77	40,5	13,0	1,3	18,2	10,4	1,3	1,3	13,0	22,1	7,8	11,7
Ainhoa	56	83,7	7,1	12,5	21,4	26,8	0,0	0,0	3,6	12,5	7,1	8,9
Angelu	2.853	72,7	0,2	5,3	8,1	28,1	2,8	6,8	11,6	15,1	7,7	14,3
Arbona	110	53,0	3,6	3,6	20,9	16,4	0,0	7,3	12,7	6,4	15,5	13,6
Azkaine	219	52,7	2,3	8,7	15,1	26,0	0,5	3,2	16,4	10,0	6,4	11,4
Baiona	4.086	89,1	0,3	4,6	5,8	27,7	2,1	7,4	8,6	14,6	11,7	17,3
Biarritz/Miarritze	3.056	120,6	0,3	3,7	5,6	33,8	2,5	5,0	14,0	14,0	6,3	14,9
Bidarte	682	104,7	0,4	4,5	9,2	27,1	8,4	6,3	10,3	18,5	6,2	9,1
Biriatu	40	35,1	2,5	7,5	17,5	25,0	0,0	0,0	15,0	7,5	17,5	7,5
Bokale	252	32,4	0,0	4,4	9,9	27,4	2,0	3,6	6,0	11,5	15,9	19,4
Ziburu	439	64,0	5,0	2,7	5,5	20,0	2,3	7,7	15,3	9,8	9,1	22,6
Getaria	115	88,2	0,0	2,6	4,3	27,0	4,3	6,1	14,8	12,2	10,4	18,3
Hendaia	990	59,1	5,8	4,8	7,9	28,9	1,6	4,3	16,2	8,9	8,2	13,4
Donibane Lohizune	1.590	122,4	0,8	4,5	4,7	38,8	1,4	5,6	13,8	11,1	7,8	11,4
Senpere	281	47,2	5,3	8,2	14,6	21,4	1,8	4,3	9,3	10,3	8,2	16,7
Sara	143	56,4	14,7	7,0	18,2	21,7	0,0	0,7	11,2	4,9	8,4	13,3
Urruña	478	51,9	2,5	7,3	10,9	28,0	2,1	4,6	14,6	13,6	5,2	11,1